



**EBAZPENA, 2021EKO APIRILAREN 7KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. HORREN BIDEZ EBAZTEN DA 2021/2022 IKASTURTERAKO OSASUN ARRAZOIAK DIRELA ETA ZERBITZU-EGINKIZUNAK ETA KLASE-ORDUEN 1/3KO MURRIZKETEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK ARGITARATZEA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2021EKO OTSAILAREN 4KO EBAZPENAREN BIDEZ ARAUTUTAKOA.**

185/2010 Dekretua, uztailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzeko denak, bere 12. Artikuluan ondorengoa dio:

*"Irakaskuntzako arrazoiak edo norbere osasun-arazo larriak direla-eta, karrerako funtzionarioek berez dagokiena ez den beste ikastetxe batean lan egin ahal izango dute.*

*Salbuespen gisa, zerbitzu-eginkizunak eman ahal izango dira odol-ahaidetasuneko lehen mailako senideren batek gaixotasun larria baldin badu, betiere elkarrekin bizi badira eta interesdunaren arreta pertsonala beharrezkoa dela egiaztatzen bada.*

*Era berean, salbuespen gisa, eta gehienez ere bi urtez, zerbitzu-eginkizunak eman ahal izango zaizkie gaixotasun larria duten pertsonen, betiere hori bidezko mediku-txostenaren bidez egiaztatzen bada. Eginkizun horiek izan daitezke zuzenean eskolak ez emateko.*

*Zerbitzu-eginkizunak ikasturte osorako izango dira eta interesdunak ezingo die horiei uko egin. Urtero, ikasturtean ikasturteko zerbitzu-eginkizunen deialdiak egingo dira Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez"*

71/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena, bere 10 k) artikuluan, Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren eskumena zerbitzu-eginkizunak ematea dela ezartzen da.

2021eko otsailaren 4ko ebazpenaren bidez, osasun arrazoi larriengatik eta senideen gaixotasun larriengatik deialdia argitaratu zen.

2021eko otsailaren 4ko ebazpenaren zazpigarren atalean ezartzen denaren arabera, deialdi honetan exijitzen diren baldintzak betetzen dituzten eta garaiz eta forman aurkeztu diren eskabideak balorazio batzordeak baloratuko ditu.

Esandako 2021eko otsailaren 4ko ebazpenaren zortzigarren atalak esandakoari jarraiki, Langileak Kudeatzeko zuzendariak deialdiaren behin-behineko zerrendak argitaratuko ditu dagokion Balorazio-batzordeak egindako ebazpen-proposamena oinarri hartuta. Behin-behineko zerrenden aurka, interesdunek aurkeztu ahal izango dituzte alegazioak 5 egun balioduneko epean, zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, bere 54. artikuluan arautu du zerbitzu-eginkizuna, eta lanpostuak betetzeko aparteko era bat bezala taxutu.

Horiek horrela, behin eskaerak aztertuta eta balorazio batzordeak egindako proposamena ikusita, otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak ezartzen duen eskumenaz baliatuz, honako hau

#### EBATZI DUT:

**Lehena.-** Hezkuntza Saileko langileak kudeatzeko zuzendariaren ebazpena, 2021/2022 ikasturterako zerbitzu-eginkizunen eta klase-ordu 1/3ko murrizketen behin-behineko zerrendak argitaratzen dituen argitaratzea. Deialdia 2021eko otsailaren 4ko ebazpenaren bitartez egin zen.

**Bigarrena.-** Ebazpen honen I. Eranskina argitaratzea. Eranskin horretan 2021/2022 ikasturterako behin-behinean baimendutako zerbitzu-eginkizunak eta klase-ordu 1/3ko murrizketak ageri dira.

**Hirugarrena.-** Ebazpen honen II. Eranskina argitaratzea. Eranskin horretan behin-behinean ez onartutako eskabideak eta ukatzeko arrazoiak ageri dira.

**Laugarrena.-** Emandako zerbitzu-eginkizunak, oro har, hutsik dauden lanpostuak betetzeko ematen dira, eta interesdunek ikasturte hasierako esleipenera joan behar dute, dagokien txandan, lanpostua aukeratzera, hurrengo kasu honetan izan ezik: Osasun-arrazoi larriengatik edo, salbuespen gisa, behar adina egiaztatutako beste arrazoi batzuegatik zuzenean eskolak ez emateko zerbitzu-eginkizunak baimentzea.

Hori guztia, deialdiaren zortzigarren atalean ezarritakoa eragotzi gabe.

**Bostgarrena.-** Argitarapena <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus> webgunean egingo da.

**ERREKURTSOAK**

Deialdi hau argitaratu zuen 2021eko otsailaren 4ko Ebazpenaren 8.3 paragrafoan xedatutakoaren arabera, I. eta II. eranskinetan argitaratutako behin-behineko zerrenden aurka interesdunek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte 5 eguneko epean, Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideak Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zerbitzuari zuzendu beharko zaizkio, zuzenbidean onartutako edozein bide erabilita. Gainera, erreklamazioak erraztu eta arintze aldera, helbide elektroniko hau jarri da alegazioak egiteko: [hezkuntzalangileria@euskadi.eus](mailto:hezkuntzalangileria@euskadi.eus)

Vitoria-Gasteizen, 2021eko apirilaren 7an.

Blanca María Guerrero Ocejo  
**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**



ELSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN